

[3]

1970. (Udabarna)?



I K A
T O L S
A

AURKIBIDEA

Eskola-berria eratzeko zenbait oinarri...	4 or.
Ttikien ikastolan erlijioa.....	14 or.
Elkarrizketan zertarako?.....	17 or.
Diziplina era berria.....	20 or.
Ikastola-mugimenduaren oinarri eta elburuak..	27 or.
Iñaki Odriozola eta Jose Mari Riaño-ren elkarrizketa..	32 or.
Ikastolen arteko har-emanak.....	34 or.



Heziketa, uste dut, bizitzaren jarraipen-hari bat dela, eta ez bizitzarako prestatze bat... Uste dut ekintzak borobiltzen dituela ideiak, uste dut metodoaren koxka haurraren interes eta ahalmenak azkartzea dela.

Heziketa bizitza da. Utz dezagun heziketa bizitzaren gero-ko epe baterako prestatzea delako pentsakera, eta egin dezagun orainaren ezagupide. Ikas ekintza-bidez... Ikasketak ez du eguneroko haurraren esperientzia burutze bat baizik izan behar; eta hortan datza ikastolaren eginkizuna: esperientziak jaso, esperientziak bildu, eta... esperientziak izadi-jakintza, geografia, matematika edo beste zerna-hi jakintza bihurtu.

(John Dewey-ek "Schools of to-morrow" delako liburuan).

ESKOLA-BERRIA ERATZEKO

ZENBAIT OINARRI

Elektrizidade, abiazio, zine, radio, egunkari, inprenta eta telefonoaren garaian, sozialismo jator bat alderdi guztietan berehala errotuko dala espero dugun momentu hontan, herrien bizitzaren nezesitate indibidual, sozial, intelektual, teknika eta moralei gisa guztiz erantzun go dieten eskolen berritzapen berri bat badaezpadakoa dugu. Guzti hori, umeen zerbitzurako umeen onerako. Ez gera alferrik bizi XX-garren mendearen akaberan.

Labur bederen, berritzapen honek eskatzen dituen oinarri-printzipioak eman nahi ditugu. Emango ditugun psikologiko-fundamentoen frogak aztertzen ez gera hasiko, ezta hoiien pedagogiko balioaz ez gera mintzatuko. Irakurleak hori egin nahi izango balu, liburuaren azken orrialdeetan ipiniko ditugun liburuak irakur ditzan, aski luke.

1. Heziketaren helburua edo azken jo-muga.

Edukazioaren helburua, hots heziketa zertarako den jakitea, nahi-ta-etzkoa dugu. Nolazkoak nahiko genituzke gure haurrak? Haiengandik zer iritxi nahi dugu?

Fabrika bat ireki aurretik, fabrika hartan zer objeto-gauza egingo den ondotxo daki injenieroak. Ez dabil nora-ezik. Lanean hasi aurretik, han eta hemen galdeginaz ba daki non eta nola eta zer kondiziotan sal ditzakean bere produktioak. Konpetentziari nola gogor egin, ondo pentsaturik du. Bihotzik gabeko kapitalist ra-

zionalizazioak eragin dio nagusiari han eta hemen galde dezan, izan ere, industrialak ez bait dio bere buruari galdegingo, guztiok uste izanen genukean bezala: "Sortu behar dudan produkto hau, sozietateari ongarri izango ote zaio?", ez du hori galdegiten, hau baizik: "Enpresak bere buruari eutsi eta neuk benefizio-etekin ederrik izan dezadan, behar hainbat gauza eta behar beste garesti salduko ote dut?"

Kapitalista interesatu honen gisa jokatzeko dute hanitz gurasok, eta zorigaitzez sozietateak berak ere bai.

Guraso askok axola gutxi du haurren egiazko heziketa-formazioaz, beren semeen nortasunaren aberastasun zinezkoaz! Besterik nahi dute! Lanbideren bat aurki dezaten, halako eskolaren bate tan maisu bezala sar ditezen, negozio handitako etxeren batetan edo Estaduaren administrazioan oinak sendo ezar ditzaten, etsaminak ondo pasatzeko eta beste guztietarako behar hainbat ikas dezatela. Hori da guraso gehienak haurrei opa diena. Alde batera, ez da batere harritzekoa joka-molde hori, hartu duten kultura, kultura utilitaria bat besterik ez bait da izan. Irabazpiderik ez badu sortzen, kulturak hoientzat ez du baliorik. Eta naski, hortarako kaskoa liburuz besterik idukitzea da onena. Leku askotan, kulturari beste zentzurik ez zaio ematen!

Bestalde, sozietatea bera ez da bide zuzenetik ari, ez du behar bezala gure hauzia hobeto konprenitzen, ez da bihotz zabalagokoa. Bizi egin nahi du, bere politikan aurrera jo nahi du, baina hemendik hamar-hogei urtetara zer litekean pentsatzeko ez du astirik, ez baretasunik. Biharkoa, etziko nahi du lortu, etzi-biharamonari begiratu gabe. Haurren edukazioa biharkorako nahi du, ez du luzatu nahi beren haurren edukazioaren fruitua. Bihar bertan ez geroago, produzi dezala. Bere objektuak serien produzierazten dituen industrialak halatsu jokatzeko: sozietatearen onari eta honen beharrei begiratzeke, zer-nahi sortzen du eta

zabaltzen. Ez dago sozietatearen probetxuari, berehala lortu dezakean etekinari baizik.

Haurren ona ez baina bere interesak defenditzen dituzten gurasoen eta sozietatearen bu rugabekeria hauek bazterrera utzirik, haurren heziketa-educazioa, zertan datzan garbi esango dugu: "Haurra sozietatearen zerbitzurako eta sozietatea haurraren zerbitzurako dan komunitate-gizarte razionalaren baitan gotortu eta zabalduko da haur horren berorren nortasun-pertsonalitatea." Gaur interesatuak alde batetara utzirik, gisa hortan hazi behar du haurrak, horrela egingo da gizon, bakea eta gozoa darokean sozietate berria eratzeko gizonearen alde sanoki lan egin dezan.

Hori dena, gaurregun amets-hutsa dirudi, ideal eder bat alegia, baina halarik ere, esan beharra zegoen. Pratkan, izan ere, besterik gertatzen bait da. Jendearen egoismoari, inte res kaskarrari eta bururik gabeko erakundeei, buruz-buru egin behar izango diete maisuek eta anderenoek. Gogor gainera. Hoiiek denak, haurren edukazio jator baten kontra ari bait dira. Hain zuzen horresengatik, ideal sano eta garbia ezin bestekoa dute edukatzaileek. Ideal horren-gatik behar izango dute sakrifikatu, eta.... sofritu.

2. Haurren inguruan ibil eta haurrentzat behar du eskolak.

Orain arteko eta oraingo eskolak, irakatsi behar diren materietan, materia hoiiek eskatzen eta zortzen dituzten programa inguruan biltzen zituzten eta dituzte beren indar guztiak. Bai maisuek, bai ikasleek beste egitekorik ez dute: ahal denik eta hobetoenik bete programak eskatzen duen guztia.

Guk nahiko gendukean eskola oso bestelakoa

da. Haurra komunitatearen puska bat danez, haurraren inguruan, haurraren jira-biran dabil eskola berria; haurra bera, ahal danik eta hobetoenik hezitzen saiatzen da. Haurra bera bizi deneko sozietateak zer duen beharrenik ikusita gero, jakingo dugu haurrak zer teknika motaz jabetu behar duen -esku-burulanak- zer materia irakatsi behar zaion, nola irakatsi eta zer heziketa mota eman behar zaion.

Pedagogia arrazoizko, egikor eta gizakoi batez baliatuko gera, honela, haurra bete-betean gizon izatera hel dedin.

3. Gure laguntzaren bitartez, haurrak bere gisa moldatuko du bere nortasuna.

Sozietatearen funzional beharrak (premiak) aski zuzen ezagun baditez ere - gutxi-asko agindu gogorren bidez, horiek ezagutuz geroz zer egin eta nola joka erabakitzen du Estadak - askoz ere zailagoa da haurraren fisiologiko eta sikiko neurria, bere joerak eta posibilitateak, bere balioa eta hontarako eta hartarako duen kemena (energia) ezagutzea. Hori ezagutuz geroz, haurrari zer heziketa mota eman, jakinen dugu. Berrogei-ta-hamar urte hontan hurrez gauza asko ikasi bada ere, halaz guztiz, egin den guztia, ikasi den guztia, deus gutxi da. Heziketa mota berezi bat eman nahi bagenie beraz, kontuz ibili behar da. Bere gaudua nola mantendu ez dakien baserritar batek bezala joka genezake beraz: ezin bestean, zekorrak eta behiak zelaira bota ditu, hemen jauzi eta han zilipurdi nahi duten belarrik gozoena aukera dezaten, eta honela indar-betean, gizen arin eta larru ditzirakorrez hazi ditezen.

Gaurregun, oraino ere, metodikoki, zientifikoki haur bakoitzari komeni zaion heziketa mota eman ez dezaiokegunez, besterik ez bada, hau-

rraren formaziorako balio dezakean material eta teknika presta dezagun eta ahaleaginean eman dezaiogun; zertarako balio duen, zertaz gustatzen den, zer duen beharrenik ikusi ondoren, bide hartatik bultza dezagun.

Buruz ikasi behar dituen materia haiez ez gaitezen gehiegi okupa; ikasi beharrezkoak dituen zientzia-rudimentoek ere ez dute garrantzi handirik. Beste honek du garrantzi:

a) haurraren osasunak eta kemenak, kreatzeko eta ekiteko fakultateak bere baitan duen iraupenak, gero eta indartsuago aurrera jotzeko dituen posibilitateak;

b) inguruak (medio) hezitzeko duen aberast^u sunak, balioak;

c) inguru-medio hortan, egiazki, osoki eta naturalki haurra edukatzeko behar diren teknikak eta materialak.

4. Biharko eskola, lan-eskola izanen da.

Zer esan nahi du horrek? Ez noski, lehenik buruan sarrerazi dieguna argitzeko, ilustratzeko lanaz baliatuko geranik; ezta garaiz aurretik geure haurrak lan produktiboetara bultzatu behar ditugunik ere, eta are gutxiago intelektual eta artistiko lanak alde batetara utzi behar diranik. "Herrikoi pedagogiaren motor, filosofia eta printzipio nagusia, ikaskizun guztiek sortaraziko dituen aktibidadea, lana izango da".

Lanaren sozietatean eskola arraberritzen (regenerar) dugularik, bizitza-giro hortan ezin hobeto biziko da, eta bizitza horren eragilerik sendoena berau izanen da.

5. Buruären barne-muinak ondo taxutuak eta esku abilak hobe, ezen ez da muturreraino betetako zahagiak.

Haurren heziketa, lanaz baliaturik egin nahi badugu, alde batetara utzi behar dugu orain dainoko eskola tradizionala. Eskola hortan, haurren buruan ahal dan bezainbat sartzen saiatu, besterik ez bait da egiten. Haurrak geldidaude, pasiboki, besterik gabe. Haurrak gizon, bere gisa eta erara lan egiten dutelarik aktibidade konstruktiba baten bidez egingo dira. Maisuek hortara eratu-organizatu behar dute eskola.

Esan dugun guzti hau, teoriiaz bederen, denek onartzen dute; pratikan besterik da gertatzen: beti lehengo eskola modari jarraiki. Hontarako eta hartarako norbait aukeratu behar dalarik, zer gertatzen da? Etsaminak-eta eratu. Zertarako? Ondoenik beterik dauden zahagiei notarik eta lekuri onenak emateko, eta dena-har buruz, eskuz eta bihotzez ondoenik hezirik direnak bazterrean uzteko. Azkenok, jo eta ke biziro gogor guduka ari izan beharrak dira aurrera aterako eta gailenduko badira.

6. Lan organizatuari, diziplina razionalbat dagokio.

Pedagogiko eta sozial bide berri honi, ordena sakon eta funtzional berri bat sortuko duen antolamendu berri bat dagokio; lan eta aktibidadeen organizazioaren ordena beraren ondorioa izango dan diziplina bat, eta gainera, eskola-bizitzari eman zaion gisako razionalizazioak sortaraziko dituen eragikortasuna (eficiencia). Sozietate ahul hontan dena gure baitan baita da go, orain arteko ustekeria txoro guztiak gora-

-behera, taxuzko pertsonak eratuko ditugu.

Ez da izango naski, askok usteko luketen bezela, maisuak aginpiderik ez, eta batere diziplinarik gabe anarkia hutsean eraikiko litzakean eskola. Bestela gertatuko da. Organizazio hobea duelakoz, diziplina ere hobea izango da. Azalako diziplina formal hortaz beste egin behar dugu. Egia esan, gaurregungo eskola tradizional askok azalako diziplina hori gabe, erreka bezala beheti egingo lukete. Guk nahi dugun eskolaren diziplina, eskolaren beraren aktibidadearen eta bizitza komunitarioaren ondorioa behar dugu.

Diziplinak garrantzirik badu ere, beste honek du batipat: lanaren material, tekniko eta pedagogiko antolaketak, hots organizazioak, honek eragingo bait dio eskolaren bizitzari, eta hori gabe diziplina bere ezer gutxi bait da.

7. XX-garren mendean bizi dan gizonari, XX-garren mendeari dagokion eskola.

Inguruan gertatzen danari begiratuaz egingo diran eskola berriok, bizitza berri bat behar dute, eta hortarako ez da aski, leku, programa eta ordu berri eta zehatzagoak bakarrik izan ditzan baizik eta gure haroaren (época) progresoak galdegiten dituen lan tresnak eta teknikak ere behar ditu. Ez gaitetzen atzera gelditu, orain dala ehun urte biziko bagina bezala. Aski hitzontzikeriaz, testoko liburuez, resumenez, ikaskaien rexitazioaz eta kaligrafiaz. Inprenta, disko, radio, idazteko makina, foto, zine, telefono, tren, auto, abioi eta habarren mendean ez gera alferrik bizi ! Otoi!

Harritzeko ere ba da, baina nazioko gidariak eta gurasoak ez bide dira hortaz denaz ohar-tzen. Bainan, saia gaitezen gu, eskola berri hon-tan berritzapen guztiok sartzen. Gizona hobetzeko, gizona gizonago egiteko bitez berritzape-nok!

8. Goitik ez baina behetik behar da eskola berritu.

Modak edo amets txoroek eraginik ez gaitetzen eskolak berritzen has; ezta agintarien aginduz ere, gauza txikiei dagozkienetan behintzat.

Lehen egin dan guztia ankaz-gora bota eta belozidadeak eta makinak aginduko luketen gero ilun batetan ez gaitezen sar. Adaptazio hau buruz egin behar da. Zuhur. Ez nola-nahi. Bizitzaren zerbitzurako. Bizi geraneko ingurua: familia, ohitura eta usadioak, eta gure aurretik pasatu diran gizonen lanak gogoan ditugula hasi behar dugu berritzapenok sartzen. Hoietan finka bedi heziketa berri hau! Ez goitik-agintarien borondatea ditekean onena izanik ere! behetik baizik, bizitzaren giro sanotik, kementsutik, hauarak hezi eta mundu hobe baten bila abiarazteko aski bait da hori.

9. Berritzapen-adaptaziook egia bilatzeko, hantiz problema sozialekin topatuko gera.

Pedagogiko prolema hau horrela bururaturik, pentsaturik, sozial konplexitatearen beraren muinera gakazki. Ez ditzagun beraz ahaz, eskolaren sozial problemak; ez dezagun bazterrean utz diru kontua, eta ez dezagun gutxietsi maisu berrien formazio eta readaptazioa. Ordena berri honek ekar ditzakean nahaste eta saltsak goiti-behèiti, gure pedagogiko reboluzioak lehengo desordena hartan behar du finkatu, han du oinarri; bistan dagusagunaz balia gaitezen geroa ailtxatzeko; arrazoi bidez eta etsenplu onaz hobe da jendea gure aldera jartzea ezen ez eta hartara gogo txarrez behartu; ez hitzez, eginez konbenzitu baizik. Gure organizazioak ekar ditzakean fruituak ikus ditzatela; ondorio onak ikusirik txundituta gera ditezela, eta batez e-

re,bide berri hoietan sartzen ausartu diran maisuen ausardiaz eta mistika bikainaz harri ditezela.

10. Herriaren eskola,sozietate herrikoi batetan baizik ez diteke bizi.

Gure eskolak lehenari loturik behar dutela esan dugunean,egonean dagoen politika bati loturik bizi behar dugunik,ez du adierazi nahi izan.Alderantziz:ondotxo aldrebes ari dira,orain bizi geran sozial kaos hontan eskola eta pedagogia berriak sartu eta gerora etorriko di ran sozial berrikuntza guztien eredu izango di rala pentsatuko luketenak.


Esperientziak besterik erakusten du.Umilago jo behar dugula,alegia.Esperimental izan dira, izan ere,momentu batez iritsi zuten garaitzapenak labor iraun bait zuen;puntan,hots banguardian. Teorian bai egon ditezke-horrekin ez dugu aski-baina praktikaren aldetik,familia-sozial-politiko giroak kondizionaturik daude.Mugaturik alegia.Giro hortan,nekez baizik ez diteke bere askatasun osoan hasi eta bizi.

Zinez esan,sozial garaitzapenen atzetik dabil beti eskola.Oso atzetik gainera.Guri,maisuo da gokigu,atzerapen hori gero eta txikiago izan de din.Garaitzapen ederra liteke hori!

Feudalismoak,eskola feudala sortu zuen;Elizak, bere berea duen eskola berezi bat;kapitalismoak berriz,hitzez humanista baina egitez hitzontzi keria huts dan eskola.

Hitzak hitz,sozial prolemak ezkutarazi eta teknika geldierazi besterik ez du egin kapitalist eskolak.Bere buruaren jabe egin dedinean, Herriak bere eskola eta honi dagokion pedagogia izango du.Herria gora eta gora ari da. Sortzen ari dan mundu berri honek eskatuko daukun beza lako edukazio-heziketa emateko,gauden prest.

Gehiegi luzatu gabe, berandutu baino lehen, lotu gatzazkion lanari.



TtikiEN iKASTOLAN

ERLIJIOA

Gure herrietan izugarrizko garrantzia ematen zaio haurrak ttiki-ttikitandik otoitz asko esaten eta dotrina hitzez-hitz errepikatzen jakiteari; honela kristautasuna sendo oinarritzen zaielakoan, jokabide honekin geure buruak engainatu besterik ez dugula egiten konturatu gabe eta, okerragoa dena, sarritan, konturatu nahi gabe, egiak beldurra eman ohi daukulako, nahiago dugu begiak hertsiaz lehenean jarraitu lasai gelditurik.

Bainan kristautasuna bizitza da eta ez otoitz-molde xorta bat; galdera-erantzun luzeak buruz jakitean ere ez datza kristautasuna. Beste aldetik, haurrengan ondo oinarrituko diren noziak, ulertzen ez dituzten hitz-aspertu eta otoitz jakinen bidez ez dira behinere lortuko. Bizitza bizitzarekin bakarrik adierazi diteke eta gainera haurrak edozein nozioetazoinarritzen joateko bere legeak ba dituela, alda ezinekoak, ahaztu ez dezagun.

Kristautasunaren oinarriak aurkitu behar ditugu aurrenik (gure artean oso ezkutuan daude eta); gero, haurren biotzetan erein beren izate berezia errespetatuaz.

Kristautasunaren oinarri behar-beharrezko bat benetakoa izaten dagoela ezin ukatu; beraz, nere iritziz lehenengo urratsa bezala, haurrari benetakoa, toles gabea izaten utzi eta bultzatzea dezaiogun, ez hitzez, egitez baizik, hau da, representaliaren beldurrik gabe, diran bezalakoak azaltzen utziaz. Adibidez, bi haur burrukan ari diranean ez bakeak egitera behartu, faltsukeria litzake-ta. Hori adimen eginagoen ahalmena delarik haurrak ez du barkatzearen sentidurik sumatzen. Hartaratzan badira handien beldurragatik,

haiei poz ematearren, edo-eta tristeena, hola koetan Jainko arrazoina sarritan sartzen dugunez, pekatuaren beldurragatik izanen da eta hola kristautasuna ereiten ari garalakoan pertsona faltsu bat besterik ez dugu egiten.

Astakeria bat da haurrak Jainkoagatik, Jesusengatik, zerura joateagatik eta abar txintxoak izatera bultzatzea. Haurrak ezin du ulertu, gauza oiek beretzat fantasmak dira. Kontura gaitezen sinismena ez dala haurren gauza. Txintxoak izateko benetako motibazioa besteren errespetoa izan behar du eta hain xuxen, honahemen kristautasunaren beste oinarri sendo bat, maitasunera, hau da, helburu nagusira, eramango dituen.

Ez da ere ez esan haurrari, esate baterako, norbaitek jotzen duenean ez erantzuteko; haurra egiten ari da eta defenditzen ikas behar dauka, beraz erantzuten utzi egin behar zaio (beti neurri bateraino, jakina) ez dezagula kristautasunaren izenean pertsona ahulik egin. Gogora gaitezen haurra ez dela pertsona egina, orain ari dela bere nortasuna zehazten eta bere indarrak ez dirala atzeratu behar, neurri handi batean behintzat.

Ikastoletan erligioa bai ala ez haurrian ez naiz hemen sartuko, oraingoz neretzat gai xail xamarra delako, gure herriko ikastolan nola moldatzen garan bakarrik azalduko dut, hau da, otoitza eta gure sinismeneko egiei buruz nola jokatzen dugun.

Hiru eta lau urtetakoak ikastolatik ateratzean bakarrik egiten dute otoitza abestiren bat kantatuaz. Otoitza esan dut bainan otoitza izeneko besterik ez da; hau egiten dugu ohituraz eta batik batik familiak eta behar bada gure kontzientzi deformatuak lasaitzeko aldera, zeren otoitza zer da? Jainkoarekin har-emanetan jartzea bihotzez eta egiz, ez da? Zer komunikazio beraz, hau-

rrek ulertzen ez duten hitz zerrenda esan eraz-
ten diegunean? Gainera adin hontako haurrak otoit-
tzaren muina hartzeko gai ez dira.

Jainko bat ba dela esaten diegu, gu bakoitza e-
zagutu eta maitatzen gaituen Jainkoa. Ez esplika-
zio bereizietan harira etortzen denean baizik,
haurrak berak sarritan ateratzen bait dute gai
hori.

Gabonak, aste-santu eta beste jaietan, ipuina
esaten den moduan agertzen dizkiegu egun hoiek
oroitarazten dituzten gertaerak, xinpleki, miste-
rioetan sartu gabe, alferrik bait litzake eta
aspergarri.

Haurrek pekaturik ez dutela egiten eta ez di-
rela inpernura joaten, zerura baizik, adierazten
nahiko lana izaten dugu, etxekoak eta edonork hi-
tzetik-hortzera, pekatu, inpernu eta Jaungoikoaz
baliatzen bait dira haurretaz, nahi dutena lortze-
ko. Negargarria hauxe! Ez dute ikusten otoitz-formu-
lekin ez baina, esanaldihoiekin erligioaren oina-
rriak jartzen ari direla haurren bihotzetan, bai-
na ez kristau erligioarenak, noski.

Hau da hiru eta lau urtetakoekin egiten dugun
guztia. Bostetik seirakoekin zerbait gehiago; ba-
tez ere, otoitzaren muina oinarritzeko ahalegine-
tan. Haur denek Jainkoaren iritzi bat ba dutenez
Berarekin hitzegitera bultzatzen ditugu, berek na-
hi dutena, sentitzen dutena, esanaz, nahiz ahoz, na-
hiz barrendik inor behartu gabe. Gure Aita eta A-
agur Maria eta ab. ere irakasten zaie goraxeago
aipatu ditudan arrazoiengatik batik bat, bai an
forzatu gabe, ikastolan sartzean ala ateratzean
esanaz bakarrik.

Eta hau da guzia.



ELKARRIZKETA ZERTARRAKO ?

Umeak bizitzarako gertatzea

Edukatu bizitzarako preparatu; ez orain bizi diren momenturako bakarrik. Baina batez ere, gero eraman beharko duten bizitzarako. Eta bizitzaren hortan gizon bezala jokatzeko jakin dezaten. Eta gizon langille bezala. Izan ere, gizonak bizi bakarrik ez du egin behar. Lana egin behar du; besteak beste lanetik jaten du.

Hortarako ume hoien dohainak landu behar ditugu; gero bizitzaren aurrean arkitzen direnean gero jokatzeko jakin dezaten. Eta hori, ez du lezio edo liburu soiletik ikasiko; egiten eta egiteaz ikasiko du nola egin. Orain bertan hasi behar du haurrak bere dohainak lantzen; gero kasu horietan arkitzean jakin dezan gizon bezala jokatzeko; kultura, sensibilitate, jakintza osasun, gizarte-ekintza eta beste zenbait mailatan.

Hauek, ekintza hauek, dohain hauek, liburu bidez ez ditu lortuko; situazio horietan jarri behar da haurra. Problema horiek -gizartekoak, kulturakoak...- soluzionatzen ikasi behar du. Eta liburu hutsak ikastearekin ez du inoiz ikasiko. Hortarako asmatu behar ditugu era eta pedagogia teknika berriak. Eta era eta teknika berri horietako batzuen bidez hona nola jokatu liteken.

Umea ekipoan jarri behar degu lanean. Elkarte edo kooperatiban jartzen da lanean. Orduan nahi ta nahi ez besteekin har-emanetan hasten da. Besteekin beharrak ikusten eta ahal badu soluzionatzeko bideak aurkitzen. Besteri galdetzen ikasten du. Besteekin hitzegiten. Eta era horretan berak egiten duenaren kontzientzia hartzen doa.

Konturatzen da bere ekintzek besteentzat duten garrantziaz. Eta berak aurrera eramaten di-

tuen ekintzek zer ondorio dituen gizarte mai-
lan.Hontan ume hori ez da bizi hutsarekin kon-
formatuko.Zerbait egitera behartua dago kasik.
Ez dugu inoiz indiferente izango.Horrek,noski,
prestaera serio bat eskatzen gure aldetik.Pre-
paratu egin behar dugu.Eta preparatu,gaurko gi-
zarteak egiten dituen eskabideetarako;edo eska-
tzen dituen jokabideetarako.Horregatik,ikasto-
la beti berritu egin behar dugu.Eta gu berri-
tzen ez bagera ikastola hor geldituko zaigu...
Geu gazte izanik,nahiko zahar gera gaurko ume-
en zuzenketa baterako.

Umeak mundura iriki behar ditugu.Ikuspen za-
bala eman behar diegu.Hitzegeiten erakutsi be-
har diegu.Elkarrizketa bidez gaurko problemetaz
arduratu behar ditugu.Aukera bideetan jarri be-
har ditugu.Berak denen artean hitzegin eta az-
tertuz problemak soluzionatzen joan ditezten;
gaurko problemak;Gure problemak.

Elkarrizketa-bidean aurrera

Hasieran umeak bata bestearekin hizketan jar-
tzea aski dugu.Izan ere umea askatu egin behar
dugu.Umeak lasai hitzegeiten ikasi dezan.Eta ha-
sieran nahiz-eta txorakeri asko esan,ez dugu
atzera egin behar.Soltura eta askatasun neurri
betera iristea askotan ez da gutxi.

Garbi ikusten da lehenbiziko elkarrizketak,
era horretakoak dirala;beren nahi-erara, beren
gustora.Eta hori hasiera batean beharrezko ikus-
ten da,lehen esandakoagatik.Zein gehiagok*da* ihar-
dute hori;umekeria,txorakeria asko esan nahi...
hori guzia ume izatearen agerpen bat da,manifes-
tazio bat.Eta hortik hasi behar dugu.Zabaltzen
hasi;irekitzen;eta ez hersten eta ~~oz~~topoak jar-
tzen.Lasai mintza ditezten,beldurrik gabe...

Honek ez du esan gura beti horrela jarraitu
behar dugunik.Aurrerantz begira oraingo elka-
rrizketa auek beste sasoin bat agertzen dauku-

te. Gai batzuk aztertzen hasi dira. Eta hau oso interesgarria da. Piska bat obetoago, piska bat gaizkiago baina hor daude. Berek hautatu dituzte azterketarako gaiak; berek, ahal izan duten eran, prestatu. Aztertu eta sakondu ondoren, elkarriketa bidez guztieri agertu. Era honetan langile eta sortzaile bihurtzen dugu umea. Eta batez ere edozein gai aztertu eta azaltzeko gai egiten ari da. Gaurko egunean hain beharrezkoa den kritika sano batean hezitzen. Besteekin diskutitzeko, hitzegiteko, elkarrekin lana egiteko prestatzen. Aurrerantz begira gaiak hobeto, sakondu, gizarteari begira jarri. Gure-gure diren problemak aztertu, hitzegin, diskutitu.



DIZIPLINA ERA BERRIA

Diziplina era berria...hain zuzen ere,diziplina ikastolatik kanpora ere beharrezkoa iruditzen zaigulako,baina ez askok eta askok konzebitzen duten moldeetan eta lortzen duten eran.

Gogora dakazkit orain nere haurtzaro eta gaztaroko heziketa moldeak,zureak ere noski.Nork ez ditu ezagutu zigorraren eta sariaren akuilu jesuitikoa,karraxika lortutako isiltasun giro babeskoia...noten bildurra...eta isilik obeitzen ikasi beharra batetik,eta irakaskintzaren konzepzio formala,azalezkoa,makinismoaren zerbitzurako ezarritako kultura eta matematiketan edo gramatikan egindako etengabeko ihardunaldiak,bestetik?

Nola uka dezaiokegu haurrari gizon helduak geranez gizarte mailan iritxi nahi duguna?Gizarte berri bat ernetzen ari da indarka eta baldarika demokraziaren moldeetan eta gu,irakasleok,eta gurasook beldur gera,haurra heitzeko askatasuna beharrezkoa dela entzutean.Maizegi erasten dizkiegu haurreri gure lanaren zuzenketa kaskarrari zor dizkiogun erruak.

Obedientzi itsu baten esigentziatarak makurtzen ez dana,zintzo-zintzo kultura arrotz baten iturri eta haurren bizitzatik eta motibazioetatik aparte osatutakoak diran zentzu gutxiko ihardunaldiei ekiten ez diona,...barruko bizia eta kezkek ikastolako atarian utzi beharra izanik lanean itsasten ez denari,ume zaila deitzen diogu...

Ez harritu,beraz,pertsona problema baino instituzio eta organizazio problema dela diziplina aitortzen badut.

Diziplinaren lehenengo sustraia lanaren-zu-

zenketan dagoela dakust. Lanaren zuzenketa berria, instituzio bizieta itsatsia, behar dugu noski. Lanerako programa osoa haurrekin eratu, beren bizitzatik sortua! Instituzio biziak izan ditezke: haurrekin elkarizketa, gizartea ezagutzeko irterak, haurrek prestatutako hitzalditxoak, taller lana (limografoa, aroztegia, baratza, jostundegia dela), haurren periodikoa, idaz-azlpenak eta beste zenbait gauz...

Baina bada gaur, nere iritzian, beste instituzio bat, besteen gain behar lukeana, batez ere beste instituzio askoren sortzaile izan ditezkealako: hitz batez "konsejoa" deritzaguna.

Lanaren zuzenketa osorik lortzen ditzen ez dan bitartean, ez da lortuko behar genukean neurrian, ba darama ikastolak desordenaren azia. Diziplina formala, itxurazkoa, azalezkoa baztertzea pauso bat da. Lan bananduaren girora haurrak askatasunean hezitzea, pauso eder bat da. Hori bai, konfliktoak beti sortuko zaizkigu.

Nolaz zuzendu?

Hau da gaurkoz kontsejuaren bete-beharrik nagusienetakoa. Kontsejua, literaturan "consejo de cooperativa", haurren batzarra deitzen dugu.

Hiru arlo nagusi ditu bere gain batzar honek :

-haurren arteko, haur eta irakaslearen arteko iskanbilak eta gora-beherak erabaki eta zuzendu.

-lanaren zuzenketak sortutako akatsak konpondu.

-goraldu ondo egina dagoena.

Urtearen zehar batzartu izan gera. Larunbatetan gehienik. Goizerdi aldera haurrak borobilean esertzen dira. Neroni ere haur bat izango banintz bezala esertzen naiz. Tarimak eta presidentzik baztertuta dauzkagu. Kondaira pittin bat egiten has gaitzen...

-Lehenengoa. Lehenengo batzarrean, alegia, ez genuen zuzendaririk eta neroni hasi nintzan as

te hartan gertatutako zer-batzuk gogoratzen eta denon erantzun bat behar zutela esaten: margoak jaso gabe gelditzen dira, mantalak eta berokiak lurrera botaka ankapean zikintzen ditugu... gelako ormak apaingarririk gabe oso triste daude, gauzak desorden handi baten aurkitu izan ditugu... Haurrak isilik zeuden. Epailari zorrotz baten antzera artu ninduten nunbait. Bainan, aurreko urteetan elkarizketa egitera ohituta zeudela ko, alegia, azkar xamar hasi zitzaizkigun beste oker batzuk gogoratzen eta bat edo **beste** bere laguna salatzen...

Berehala hitz-jarioa jabetu zan gutzaz eta anarkia antzeko zerbait ere bai... denok hitz egin nahi genuen, neronek ere bai, hura izan zan desordena!

Denak nolabait puntu batera zuzentzeko, ikas tola apaindu eta txukuntzeko zer egin behar genuen galdetu nien. Iritzi batzuk jaso genitun eta lehenengo ardura batzuk izendatu ere bai.

-Bigarrena. Billera hau igaro eta beste bat etorri zan... lagunaren salaketa ugari ba zala, anarkian hitz egin beharrik ez zegoela, aurreko akatsek berdin jarraitzen zutela ta esan nien. Egun haretan, lan banandua eta lan elkartua aurrera eramateko gogoan izan behar genituen ardurak aztertzen eta arduradunak izendatzen hasi ginan. Arduren eta arduradunen zerrenda luze bat prestatu genuen, baina nondik sortu hauek denak betetzeko indarra? Hauxe izan zen 3'garren eta 4'garren batzarren bitartean izan nuen kezka.

-Agian :

-Nere partizipazioa gehiegizkoa izan zen. Epailari interesatu bat bezela hartu ninduten. Haurrak ez zioten batzarrari hitz egiten, nerekin bakar bakarrik ari ziren, batzuk berek esan nahi zutenari indar gehiago emateko ni nengoen lekura etortzen ziren. Ez zen batzarrik osatu izan ere bi polo arras bestelako sortu genituen: haurrak batetik eta ni, bestetik. Konzepzio

hau kentzea izan da eta izango ere lanik handi-ena.

-Askok batera hitz egin nahian anarkian hitz egiten zen eta sarritan "kapillak" osartu ere bai.

-Zentratu ezinean gai batetik bestera igarotzen ginan, pinpilipausen antzera.

-Ni bait nintzen dezesioak, bideak, zer egin eta zer utzi behar zen zuzentzen nuena, nahiz-eta haurren iritzia entzun.

Baina giro berri bat sortzen ari zen, alegia. Haurren arteko eztabaidak personalki erabakitze a baztertu eta konsejurako uzten ikasi zuten. Ostikadaren legeari konsejuaren erabakiek jarraitu zioten. Hau, aurrerapen handia iruditzen zitzaidan. Beste aldetik, ni ez nintzela epailari interesatu bat oinarritzen joan zen, eta zenbait gauza denen onerako edo kalterako zirela ikusten hasi ziren.

Boskarren bilerarako parte hartzea nolabait zuzentzea pentsatu genuan. Asteazkenean zehar haurren iritziak paper zuri handi batean jasoko genituan. Ordena pittin batekin ibiltzeko, batzarrean paper honi jarraituko genion.

Paper handi hontan (60 x 50 cm) hiru zati bereziko genituen:

- a) GAIZKI: gaizki aurkituko zutena salatzekeo.
- b) NAHI NUKE: lanaren zuzenketan ikusitako akatsak salatzekeo.
- d) ZORIONAK: behar zana goraltzekeo.

GAIZKI	NAHI NUKE	ZORIONAK

Haur batek edo bestek atal buruen alderdi hori apaintzen arduratzen dira.

Hona hemen paper batean jasotakoa:

GAIZKI:

- Luis Marik jo egiten du. Juan Joxe.
- Mari Josek liburua puskatu egin du. Koldo.
- (Idaz-azalpenen) botazioan denek Imanol-i botatzen die.
- Patxik soka hartu du. Iñaki A.
- Patxi kastillanoz ari zen. Juan Karlos.
- José Antoniok kastillanoz egin zuen. Koldo.
- Luisitok zerra puskatu du eta. Franzisko.
- Imanol-ek eta besteek ez dute mantala jazten eta. Mari Jose.
- Ezkutaketan jostatzen ari zirenek gezurra esaten dute eta burla egin didate.
- Mari Lurdes-i jardinerara atzurtzen ez digulako. Tomas-i, Mari Jose-ri eta neri laguntzen ez daukulako. Arantxa.

NAHI NUKE :

- Arrainarentzat jana nahi nuke.
- Patxik ez jotzen ikastea nahi nuke.
- Paper gehiago ekartzea. Arantza.
- Ana Mariren denda ikustera joan nahi nuke. Jone.

ZORIONAK :

- Mar Karmeni lorak ekarri zitualako. Tomas.
- Idoiari zazpi urte dauzkalako. Juan Jose.
- Jose Antoniori zazpi urte egin dituelako.
- Isabeli kulunpioa utzi dielako. Ana Mari.
- Zorionak Imanoli, Jose Alejandrori eta Juan Jose-ri lan polita egin dutelako. Jose Kruz.

Bai! Baina haurren nahia entzun eta gero, haurren kezka azalduz gero, nor izango zen haurren epailari eta zuzentzaile? Orain arte bezala ezin izan irakaslea.

Gaizki egina, taldearen kalterako izan zen eta taldea berak, batzarra berak izan behar zuen gora-behera guzien zuzentzaile. Haurren batzarra indartu behar zen... Hauxe da azken azken aldian esku-artearen daramagun burruka.

Hasieratik, erabaki nagusienak botziaz erabakitzen genituen. Gaizki egina zela... soluzioak jaso eta epai bat eman, soluzio bat aukeratu eta hura bete beharra izaten zen. "Nahi nuke" zerbait zela... ardura bat sortu eta arduradun bat jarri. Bainan irakasleak bete eraziko zituen esperantzan gelditzen ziren gauzak. Hona hemen, hain zuzen ere, zuzendu beharra; irakasleak laguntzaile "argiemaile" bat besterik ez luke izan behar eta haurren batzarrak hartu beharko luke bere lekua. Nola?

a) Konfiantza giro bat sorturik iskanbilak eta desioak batzarrari aurkezteko. Irakasle berak ez du zigortzen...

b) Goitik-behera, legeak ezartzeko arriskuari uko eginaz haurren artean sortuko diran ohiturei eta epaiei bideak zabaldu. Idatziz edo ahoz haurren epaiak denboraz oitura bihurtzen dira. Ohitura hauek hausten dituen irakaslearen aurka ez, taldearen aurka baizik dijola, nabaitzen dute. Ko-rresponsabilitatea lege bihurtzen ari da! Hona nondik sortu ditekian benetako araudi "reglamento" bat.

d) Garrantzirik gabeko iskanbilak batzarrean entzutearekin aski izaten da alde batera uzteko, eta ohiturarekin gauza sakonetan errazago murgiltzen dira. Taldearen bizitzarako garrantzia duena eta ez duena bereizten joaten dira. Adibidez: erdera ugari egiten dala edo materiala alferrik galtzen denean.

e) Batzarrak aukeratuko representante edo ordezkari bat behar genuen. Behar hori neronek

azalduz gero, ondo iruditzen zitzaien halako eta halako zuzendaria. Billera eta epaiak zuzentzeko eta hitza emateko izaten da zuzendaria.

f) Era berean, bi sekretario ere izendatu genituen; bata paper handi hura irakurtzeko eta bestea epaiak jasotzeko eta paper batean apain eta garbi denentzat gogoangarri izan de din horman zinzilikatzeko.

Gizartean lortu ez duguna haurrekin lortu diteke nere iritziz. Heziketa molde zabarrak bazterturik murgildu gaitezen bizkor diziplina eta heziketa molde berritan. Bere eskubideen bila ari den gizarte burrukalariari lagun dezaiogun.



IKASTOLA-MUGIMENDUAREN

© OINARRI ETA ELBURUAK

Oso antzinara jo beharrik ez dugu, ikastolen, ikastolen historian, bi pauso hauek berezi ahal izateko: bata, herri handi edo hirietan izan zutela ikastolek hasiera; eta bestea, herri koskorragoetan sortu zirenean sarrera izan zutela jende xehearen haurrek ikastoletan.

Gaur egun, halere, beste pauso bat eman beharrean aurkitzen gara, nahiz-eta ikastolak jende xehearengana, hots, langile jendearenganaino hedaturik egon. Erdaldunei nola ireki, "sailean" hartzeko eran ikastolako ateak. Egia, zerbait esperientzi ba dute 10-tik 8-9 haur euskera ez dakitelarik ikastola muntatzen duten herri-hiriek, baina oraino konpontzeke dago taxuz familiaratik euskera ez jakiteak dakarren arazo bihurri hau.

Dena delarik ere, lehen, eta orain, ikastolak oinarri bereetan finkaturik ditugu. Aipa ditzagun zein diran oinarriak.

Oinarriak

a) Euskera. - Zenbait gurasoren jokaera ikusirik, ba dirudi, bederen aurren-berritan, beren haurra ikastolarat bidalitzearen arrazoin sakona etxetik traba bat kentzea izan dela, eta, bide batez zeozer ikasi egingo duelakoan, noski, Ba liteke.

Baitare, litekeana da, ordea, guraso gehienek nahia euskera ez galtzea izan dela, ba zekitelako haurrak ikastolan abestu, jolas, hitzegi eta, arnasa bera ere euskeraz hartuko zuela. Euskera, beraz, izan da gurasoen aldetik, andereñoen aldetik zer e-

sanik ez, lehen-osakia, baldin-eta ikastolak bere irudi jatorra moldatu ahal izan badu.

Berebat gertatzen da, gaur egun ere; euskerak sekulako garrantzia duela, guztizkoa esan genezake, baina ez edotariko euskerak. Gauza alferra da, egun, garbizalekeria edo mordoilokeria berdin gipuzkoarkeria edo liturgi-euskera batua. Euskera batua bai, baina zimendu zabalagoetan finkaturikoa. Nola gipuzkoar, hala bizkaitar, hala basterik, bakoitzak ahalegindu behar "xokoke^{ri}ak" alde batera uzten, eta euskera batua denok eta bakoitzaren obra denoz: idazle talde edo alfabetatzekoekin batera, josotzen, egiten.

b) Pedagogia berria. - Bereziki, puntu horietan ditugu aupagarri ikastolen sortzaileak. Ekintza-pedagogian oinarritzeko eduki zuten ikuspegia hainbat adore izan balute, gero, ikastola-mugimenduari egitura jatorra emateko, beste kuku batek joko zuen egun. Baina ezin, bada, dena batzuei eskatu. Sortzaileak ere ikastola sortu eta eraikitzen lanik asko erabili zuten. Agian, mugimenduaren azkartzea eta giharrez jaztea guri dagokigu, beste epe bateko langintza izanik. Dena dela, hor dago oinarria: Pedagogia berria, edo pedagogia bizia, edo ekintza-pedagogia delakoa, hiru deitura hauetariko bat, nahi dena, erabili diteke-eta.

Euskera bezelaxe, oinarri dugu, zimendu, pedagogia berria. Etxea jaso beharrak, zimendu seguruak ipini arren, lan gaitza eman ohi du. Inola ere, ordea, pedagogia berriak mundu berri baten atea ireki dauku, eta, aire berria arnasteko eran ikuspegi berriz bizitzari zentzua emateko moduan, ireki ere.

Bildu lezake, bada, indar gaztea frangorik!

Helburuak

a) Haurren heziketa. - (Ez eskolatze hutsa).

"Irakasleen Elkarteak" bere batzarrerako (70-6-30-an) egin duen agiri idatzian, hauxe ematen du lehen-helburutzat: "Gure haurrentzat eskola hutsa baino osoagoko heziketa bat nahi dugu; hontarako, haurren giza-ahalmenak osoki landu behar ditugu".

Eta halaxe da, gauzak buruz jakitea, kaskoan liburuak sarreraztea, edo oraingo etsamina ofizialetan potorik gabe irtetzea baino axola handiago du guretzat haurrei pentsatzen irakaslea, eta gertakizunak kritikatzeko, elkarrizketarako ohitzen, gauzak kreatzen eta askatasunez erabakiak hartzen jakin dezatela.

Inola ere lan hau eskola hutsa baino gehiago jotzen bait dugu, eta, pertsona osoago edo sakonkiago hartzen duenez, mila bider lanera hau maiteago dugulako.

b) Andereñoen jasokuntza. Andereño hitza aipatzean, irakasle oro (nola gizona, hala emakumezko) esan nahi dugu, astiro bederen, zenbait gizona ere ba doa eta ikastola langintzan sartzen.

Irakasleak bildu, irakasleak jantzi eta lantzea da ikastolen beste helburua. Jakintza, gutiz beharreko jotzen da, baina halere, ez da on titulua dela eta ez dela, gertatzen den hainbateko bereizkuntzarik irakasleen artean gertatzea. Herriko edo lagunarteko izateak, bizitzak eta ekintzan zaildurik egoteak, talde-lanean ohitua denak, eta elkarrekin pentsatu, aztertu, erabakiak hartu eta elkarrekin erabakiak betetzeko gai den irakasleak ere ba du baliorik asko.

Besteak beste, pedagogia-langintza eginkizun bezala, irakasleen eremua dela, bereziki, us-te dugu. Ez ditugu gauzak nahasi behar.

d) Gurasoen lantzea. Hauek dute erro-erro-tik edo sustraian ikastolei buruz eskubide eta responsabilitate osoa. Hona hemen beste puntu bat helburu bezala ahaztu ezin dena.

Ba liteke hau zenbait irakaslerentzat, gure

arteko zenbaitentzat alegia, gogortxoia izatea, baina ikastolaren bidea arteski eta xuxen marka tu nahi badugu, honela izan behar.

Eta arrazoinketa guztiz ximplea da: Haurrak gurasoenak dira. Bestalde, gure ikastolak herrikoiak izatea nahi bada, ezin utzi haurren heziketa ez Estaduaren, ez Elizaren baitan. Horrek ez du esan nahi, ordea, Estaduak edo Elizak euskal-ikastolarik sortuko ez duenik, edo-eta bai bataren, bai bestearen laguntza beharrik izango ez denik. Eman besterik oraindaino baino gehiago.

Nola baina, josi alde batetik gurasoek responsabilitate osoa dutelarik, irakasleak dirala, baitipat, arduradun pedagogiaren arloan? Alegia, irakasleek egin behar dutela, bereziki, pedagogia. Hor dugu koxkarik larriena; ez bakarrik teorian, baitare praktikan. Gurasoak goitik behera pedagogia egiten sartzea irakasleak neskame-morroitzat hartuaz, ez da deus ongari den jokabidea.

Orduan, zer konponketa ikusten da? Inola ere, puntu honek berak eskatzen du, bai batzuen, bai besteen iritziak entzun ondoan egin beharreko lan sakona. Halere, oraingoz, kriterio honek balio lezake: Gurasoak dira arduradun nagusi eta responsabilitate osoa dutenak ikastolaren arloan; baina, pedagogia, eginkizun bezala, irakasleen eremua izango litzake, non-eta ezin konponduzko eztabaida bihurri bat sortzen ez den irakasleen artean. Orduan, auzia ebaki ahal izateko azken-hitza luteke gurasoek.

Dena dela, ez du responsabilitate honek txantxetako nortasuna eta heldutasuna gurasoengan eskatzen.

Horra beraz, gurasoak lantzeko helburu honek duen garrantzia nola ikusten den.

e) Herriaren nortasuna: Aurreko hiru helburuen bilduma baizik ez da. Ikastolek ez dute talde politiku bat sortzea helburu, ez-eta Eliza egitea ere, herria baizik, euskaldun-herria.

Eta hontan ditugu komeriak: lehendanik duten nortasuna begiratzen, eta etorkizunari buruz be-

har dutena moldatzen. Horregatik, talde guztien aportazioa onarturik ere, ezin beren burua salatu diruaren hersturagatik, ideiegatik, edo erlijioagatik ere.

Lehen aipaturiko irakasleen batzarrerako iskribuan hona nola ematen duten helburu hau ere: "Euskera, eskolabide izanez gain, herri giroan hezitzea".

Bistan den gauza da: ikastolek, azkenik, herria dute helburu, herriaren nortasuna. Gure herria, ordea, baitipat langile-herri da, eta ikastolak herriaren promozio edo jasokuntza egiteko gai izanen badira, "herri giroan, gizarte giroan, eta langile giroan" arnastu behar.



IÑAKI ODRIUZOLA ETA

JOSE MARI RIAÑO-ren arteko

ELKARIZKETA

- Zenbat aldetatik inguratua dago uharterea?
 - Batetik ez, beste denetatik.
 - Zein da alde hori?
 - Goikoa.
-

- Nortzuk ziren errege katolikoak?
 - Espainiako errege denak ziren katolikoak.
-

- Zein da hurbilen dagoen izarra?
 - Estropajua.
-

- Zuk lau peseta dauzkatzu; bi galtzen zaizkitzu; zer daukazu boltzilloan?
 - Zuloa.
-

- Irakurri.
- Zer irakurriko dut, jauna?
- Nahi duzuna.
- Biblia irakurriko dut, jauna.
- Nahi duzuna esan dot.

- Ea zer ipintzen duen Biblian irakurri.
- Jauna; horaino ez dut ikasi.
- Bost minutu lagako dizut ikasten.
- Bai, jauna.

- Zer ipintzen du?
- Adanek eta Ebak sagarra jan zutela.
- Ez dautzut sinesten egia dala.
- Klaro ba!!! Gezurra da eta zelan izango da egia?
- Zer ipintzen du, ba?
- Ez dut konprenitzen ondo.
- Adan eta Ebak pekatua egin zuten; eta gero, sagar atzean ezkutatu.



IKASTOLEN ARTEKO HAR-EMANAK

Oharra: Artikulu hau Loiola-ko ikastaldietan aztertu eta eztabaidatzearen ematen diren puntu batzuek osatzen dute. Guztion gogotan dauden puntuak ordenatzea baizik ez da egin. Ba liteke zerbait ahaztutzea ere, baina denon artean berritu genezake eta xuxendu.

1. Egin denaren informazioa

Joan den ikastaroa hasi-eta geroago ekin zitzaion, askatu bat bitarteko harturik, benetako organizatze lanari; argiro ikusten bait zen pertsona batzuek hortaz bereiziki arduratu ez zik, ez zitekeala inoiz sakonki ikastola-mugimendua landu. Horra bada....

- Lehenik, Eguberri aldirako material multzo bat ekarri eta saltzeko bidea eratu zen.

- Ondoren, hor izan zen gertaera batek eraginik, Bergara-karrikako "Gordailu" delako etxe-bizitza hartu eta moldatu ahal izan genuen, gaur egun bazterretan dagoen langairik egokiena bildu edo leku batean ikastolen zerbitzurako ipintzearen.

- Etxe hau, aldi berean, gero ikusi dugun bezala, guztiontzat gertatu zaigu eyxe: irakasle-jende ugaria pasa delako bertatik, bilera bilerearen gainean zenbait lan eskuartetik atera ahal izan dugulako eta, baitipat, gure lana organizatzeko aurrerapidea argiro sumatzen lagundu digulako. Etxe hori dela-eta elkartzeko leku bat ba dugu orain, lehen izan ez duguna.

Bereziki, hiru-lau langintza, beste zenbait

ttikikeriaren artean, aipatu nahi genituzke, egin diren garrantzizkoenak jotzen ditugulako:

a) Ikastoletarteko lan gaiak bildu eta jendeari eskueran ipintzea.

b) Pedagogiako aldizkariaren hasiera. Talde baten ekinari esker, atera dira bizpahiru zenbaki pedagogi gaiak lantzeko aldizkari bat sortuaz. Egia, hasiera guztiak bezala gauza apala da, baina guztion harpidetza eta lan kidetasunez gure lanerako tresna egoki bat gerta litekeana da, noski, eta denok nahi badugu, gertatuko dena.

d) Irakasleen batzar nagusia prestatzeko talde batek egin duen lan eraginkorra.

e) Udako ikastaldiak eratzeko lanean ihardun den taldea. Ez dago esaterik bi talde hauek zer jendetza mugitu duten irakasle artean.

2. Irakasleen arteko har-emanak

a) Ikastola, ballara eta eskualdeak. Hauxe da har-emanetan lehenik ikasi behar behar litzakean puntua.

Ikastola bakoitza hartzen da zimentutzat eta, bakoitzaren nortasuna ezagutzen delarik, nola josi behar da herri hortako irakasleen arteko eginkizuna, taldeko lana, gurasoekin ko elkarbidea, etab.

Ikastolek, ordea, ba dute berezko inguru bat elkarrekin: hona non den bertan ballararen nortasuna. Beraz, behar litzake aipatu zer-nola antolatu ballara barruan irakasleen

har-emanak eta zer egin behar den ballararen nortasun jatorra moldatzeko, etab.

Azkenik, probintziakeria oro alde batera utzirik, nola eskualdeak elkarbidetu? Zer har-eman bizkaitar, arabar, nafar, gipuzkoar edo bestaldeko elkarrekin. Inola ere legeria batera jausi gabe, nola kriterio nagusi batzuetara denok berdinean bildu ikasi beharko genuke.

b) Urteko programa. Hona hontan ikasi behar ditugun zenbait puntu.

- Uztailaren bigarren hamabostaldia ikastaldietarako hartzea on den ala ez eta zergatik. Abuztu osoa oporketarako eta irailaren lehen hamabostaldia: ikastola bakoitzak eta ballara bakoitzak ikastaro-lana ongi programatzen ahalegintzeko har ote litekean. Orduan, esan beharrik ez da andereñoak ez litezkeala kolonietaz edo beste lan batetatik udaldian arduratu.

- Ikusten diren premiei erantzun asmoz eta alde zuzenetik iralazleak jakinaren gain edukitzea nahi bada, ikastaroaren hasieratik programa eginik egon behar luke urtean zehar eratu behar diren ikasketa, kursillo, etab. Hontan, beste puntu bat ere gogoan hartzekoa da: Katalunian edo beste lekuetan gure pedagogiarentzat interesgarri izan litezkean ikastaldietaz informazio ona edukitzea, beronietara jende batzuek bidali ahal izateko.

- Egutegia. Jakin dezagula hau ere ikastaroaren hasieratik. Alegia, jai ofizialak zeintzuk diren; ikastola bere-bere dituen jaiak, etab.

d) Lan-sailak. Irakasleen Batzar Nagusian izendatu ziren batzuek: Ikastaldiena, segurantzak, texto-liburuena, pedagogiarena... etab. Bakoitza nola hornitu eta lanean ipini ongi pentsa behar

den gauza da.

f) Askatuak. Askatuen eginkizuna da zehazki mugatu behar den beste gauza. Bestela, ba dute arriskurik asko urte osoa zehar enkar-gugile pasatzeko eta deus garrantzizkorik ez egiteko. Ballarako bilerak bizkortzea, lan-sai-lei laguntzea, etab. Lanik nagusienak zertu behar zaizkie ongi.

g) Gordailu. Udazkenetik aurrerat, gauza ongi badao behintzat, beste leku bat eskuartean dukegu, denda-denda bereziki izango dena. Beraz, dendaren lana ongi organizatzeko, ikastola bakoitzak, kursoaren hasieratik bere eskakizuna eginik behar du, baldin-eta gisaz zerbitzea nahi badute, Errege eta Gabonetako jostailu-pedagogi koen zabalkundea ikastea ere on legoke.

h) Bergara-kaleko etxe-bizitza. Honi buruz, aipatu behar dena. Denda beste lekura eramaten baldin bada, zer helburu emango litzaiokean etxe bizitzari. Hona oraingoz ikusten diren eginkizunak: batzar leku eta ikas-leku izatea. Beharrezko zaigu, gure mugimendua taxuz antolatze kotan behintzat, pedagogi-aldizkari batzuek bertan edukitzea eta liburutegi bat egokia muntatzea; artxibo bat: agiriak, ikas-lanak, beste lekuetako informazioa, fitxak, etab. antolatzen joateko; textuak, egiten ari den irakaskintzako hiztegia etab, azkartzeko derriorreko dugu horrelako lekuren bat izatea.

i) Aldizkaria. Ez da azken-puntuari dagoe-lako garrantzirik gutxien duen gauza aldizkari hau. Aztertutako beharko litzake oraindaino egin dena. Talde arduraduna nola hornitu, harpidetzak egitea, lankideak, gaiak, etab, benetan gure lanbidetarako tresna jatorra izango bada edo, hobe, egingo badugu.

Hona emen zenbait puntu eta beste zenbait
Loiolan sor liteke gaueko ihardunaldietarako pen
tsabide izateko.

